

SEATTLE, WASHINGTON
IGANDEA ABUZTUAK 22 URTEAN ZEHAR 21-GO IGANDEA (A)
21ST SUNDAY IN ORDINARY TIME, AUGUST 22 (A)
MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS

Hasierako Abestia-Entrance Song

Ama Maite Maria	Loving Mother Mary
<p>Ama maite, Maria, Egiguzu lagun, Zure bitartez Jesus ikusi dezagun (Bis).</p> <p>Aingeruzko lirio Guziz maitatsua, Usain gozozko lore Zerutik jaitxia, Gorde gaitzazu, Ama Gutziz maitatsua, Ez dezadan zikindu Bertute garbia.</p>	<p>Loving Mother Mary, Help us, we pray, Bay way of you, Jesus We may see (Bis).</p> <p>Angelical lillie All loving, Fragrant flower Descended from Heaven. Keep us, o Mother, All loving, We may not stain Our pure Virtue.</p>

HASIERAKO OHIKUNEAK-Introductory Rites

<p>† Aitaren, eta +Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ◎ Amen. AGURRA † Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin. ◎ Eta zure espirituarekin.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit. ◎ Amen. Greeting † The grace of our Lord Jesus Christ, and the love of God, and the communion of the Holy Spirit be with you all. ◎ And with your spirit.</p>
--	--

Damu Otoitza- Penitential Rite

<p>† Senide maiteok, aitoren ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitzen.</p> <p>† Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna. ◎ Erruki, Jauna.</p> <p>† Jesus Jauna, bekatarietako dei egitera etorria: Kristo, erruki. ◎ Kristo, erruki.</p> <p>† Jesus Jauna, gure alde otowitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna.</p>	<p>† Brethren (brothers and sisters), let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p> <p>† You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy. ◎ Lord, have mercy.</p> <p>† You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy. ◎ Christ, have mercy.</p>
--	--

<p>☉ Erruki, Jauna. † Erruki dakiguela Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara. ☉ Amen.</p>	<p>† You bring light to those in darkness: Lord, have mercy. ☉ Lord, have mercy. † May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life. ☉ Amen.</p>
---	---

AINTZA ZERUETAN JAINKOARI/GLORY TO GOD IN THE HIGHEST

<p>Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizakiei. Hain handi eta eder zaitugulako, gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guztialduna. Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme: Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu; erruki, Jauna. Zu bakarrik Santua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo, Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argitan. Amen.</p>	<p>Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer. For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High, Jesus Christ, with the Holy Spirit, in the glory of the Father. Amen.</p>
--	---

MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

<p>† Egin dezagun otoitz</p> <p>Zure fededunen bihotzak gogo bateko egiten dituzun Jainkoa: egizu zure herriak maita dezala zuk agindua, eta irrika zuk hitz emana, mundu aldakor honen erdian, gure bihotzek sendo iraun dezaten egiazko zoriona dagoen lekuan. Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Espiritu Santuarekin batean, Jainko eta Errege bizi bait da gizaldi ta gizaldietan. ☉ Amen.</p>	<p>† Let us Pray</p> <p>O God, who cause the minds of the faithful to unite in a single purpose, grant your people to love what you command and to desire what you promise, that, amid the uncertainties of this world, our hearts may be fixed on that place where true gladness is found. Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, one God, for ever and ever. ☉ Amen.</p>
---	--

**HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD
 LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING
 Josueren liburua / Joshua 24, 1-2.15-17.18b**

<p>Josueren liburutik 24, 1-2.15-17.18b</p> <p>1 Josuek Izraelgo leinu guziak bildu zituen Zikemen; gero deitu zituen Izraelgo zahar, buruzagi, juje eta idazlariak: elkarrekin Jaunaren aitzinean agertu ziren. 2 Josuek orduan, herri osoari</p>	<p>From the Book of Prophet Joshua</p> <p>Joshua gathered together all the tribes of Israel at Shechem, summoning their elders, their leaders, their judges, and their officers. When they stood in ranks</p>
---	--

<p>erran zion: 15 “Jaunaren zerbitzatzea gaizki iduri bazaitzue, gaur zuek hauta nor zerbitza: zuen arbasoek Eufrates ibaiaz bestaldean zerbitzatu jainkoak, ala Amortarren jainkoak, orai bizi zirezten herrialdeko jendearenak. Nik eta nere etxeok Jauna zerbitzatuko dugu.” 16 Herriak ihardetsi zion: “Urrun guganik Jaunaren uztea, jainko arrotzak zerbitzatzeko! Jauna dugu gure Jainkoa. 17 Jaunak atera gaitu gu eta gure arbasoak Egiptotik, esklabo etxetik. Gure begiz ikusi ditugu hark egin dituen mirari handiak; hark zaindu gaitu egin dugun bide guzian barna, iragan ditugun herri guzietan. 18b Guk ere, Jauna zerbitzatuko dugu, hura baitugu gure Jainkoa.”</p> <p><input type="checkbox"/> Jaunak esana! <input checked="" type="checkbox"/> Eskerrak zuri Jauna!</p>	<p>before God, Joshua addressed all the people: “If it does not please you to serve the LORD, decide today whom you will serve, the gods your fathers served beyond the River or the gods of the Amorites in whose country you are now dwelling. As for me and my household, we will serve the LORD.” But the people answered, “Far be it from us to forsake the LORD for the service of other gods. For it was the LORD, our God, who brought us and our fathers up out of the land of Egypt, out of a state of slavery. He performed those great miracles before our very eyes and protected us along our entire journey and among the peoples through whom we passed. Therefore, we also will serve the LORD, for he is our God.”</p> <p><input type="checkbox"/> The Word of the Lord! <input checked="" type="checkbox"/> Thanks be to God!</p>
--	---

ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 34:2-3, 16-17, 18-19, 20-21

<p>R. Goza ta beha zoin den gozoa gure Jainkoa!</p> <p>Jaunari beti esker emaiten nagokio, Hari nik beti laudorio. Jaunaren baitan arima kantuz banabila: Bihotz apalak pitz ditela. R.</p> <p>Dena begi da Jauna zuzenen zaintzen ari, Dena beharri oihueri. Gaixtagineri Jaunak hasarrez begiratzen, Heien izena noiz nola ken. R.</p> <p>Zuzenek oihu eta Jainkoak entzun ditu, Hersturetarik berak hartu. Bihotz errautsi apaldueri hurbil Jauna: Zaintzen du zaintzen apal dena. R.</p> <p>Bere gaizkiak hilen du hilen gaixtagina, Onentzat duen herrak jana. Bere gizonen zaintzale hor da hor Jainkoa: Hari dagona ez da joa. R.</p>	<p>R. Taste and see the goodness of the Lord.</p> <p>I will bless the LORD at all times; his praise shall be ever in my mouth. Let my soul glory in the LORD; the lowly will hear me and be glad. R.</p> <p>The LORD has eyes for the just, and ears for their cry. The LORD confronts the evildoers, to destroy remembrance of them from the earth. R.</p> <p>When the just cry out, the LORD hears them, and from all their distress he rescues them. The LORD is close to the brokenhearted; and those who are crushed in spirit he saves. R.</p> <p>Many are the troubles of the just one, but out of them all the LORD delivers him; he watches over all his bones; not one of them shall be broken. R.</p>
---	---

BIGARREN IRAKURGAIA-SECOND READING
Efesoarrei/ Ephesians 5, 21-32

<p>Jondoni Paulok Efesako girixtinoeri</p>	<p>From the Letter to the Ephesians</p>
---	--

Haurrideak,
21 Izan zaitezte elkarren menpeko, Kristori diozuen errespetuagatik; **22** emazteak senarraren menpeko, Jesus Jaunaren menpeko bezala, **23** senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala, bere gorputz horren Salbatzailea delarik; **24** Eliza Kristoren menpeko den bezala, emazteak ere senarraren menpeko izan daitezela denetan. **25** Senarrak, maita zuen emaztea, Kristok Eliza maitatu eta haren alde bere burua eman duen bezala. **26** Hola saildu egin nahi zuen, bataioko urez eta biziaren hitzaz garbituz. **27** Beretzat prestatu nahi zuen Eliza, distiratsua, zikinik eta zimurrik edo deus holakorik gabea, saildu eta garbia. **28** Gisa berean, senarrek ere beren gorputza bezala maitatu behar dute beren emaztea. Emaztea maite duenak bere burua maite du. **29** Nehork ez du bere gorputza hastio; aitzitik hazten du eta artatzen. Berdin Kristok Eliza, **30** gu haren gorputzeko menbro baigira. Liburu Sailduak dion bezala: **31** Horrengatik gizonak bere aitamak utziko ditu, eta emazteari elkartuko zaio, eta biak bat izanen dira. **32** Handia da mixterio hau, eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut.

- **Jaunak esana!**
- ⊙ Eskerrak zuri Jauna!

Brothers and sisters:
 Be subordinate to one another out of reverence for Christ. Wives should be subordinate to their husbands as to the Lord. For the husband is head of his wife just as Christ is head of the church, he himself the savior of the body. As the church is subordinate to Christ, so wives should be subordinate to their husbands in everything. Husbands, love your wives, even as Christ loved the church and handed himself over for her to sanctify her, cleansing her by the bath of water with the word, that he might present to himself the church in splendor, without spot or wrinkle or any such thing, that she might be holy and without blemish. So also husbands should love their wives as their own bodies. He who loves his wife loves himself. For no one hates his own flesh but rather nourishes and cherishes it, even as Christ does the church, because we are members of his body. For this reason, a man shall leave his father and his mother and be joined to his wife, and the two shall become one flesh. This is a great mystery, but I speak in reference to Christ and the church.

- **The Word of the Lord!**
- ⊙ Thanks be to God!

ALELUIA-ALLELUIA

<p>R. Aleluia, aleluia. Zuk erran hitzak dire beti, bai izpiritu eta bizi. Betiereko bizikoak ditutzu, Jauna, zure hitzak. R. Aleluia, aleluia.</p>	<p>R. Alleluia, alleluia. Your words, Lord, are Spirit and life; you have the words of everlasting life. R. Alleluia, alleluia.</p>
---	---

EBANJELIOA-GOSPEL

<p>† Jauna zuekin. ⊙ Eta zure espirituarekin. † Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik ⊙ Aintza Zuri, Jauna. † Jaunak esana. ⊙ Eskerrak Zuri, Jauna</p>	<p>† The Lord be with you ⊙ And with your spirit † A Reading from the Holy Gospel according to N ⊙ Glory to you, O Lord. † The Gospel of the Lord. ⊙ Praise to you, Lord Jesus Christ.</p>
--	---

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik/John16: 6, 60-69

Jesusek Kafarnaumeko zinagogan errana zuen: “Nere haragia jaten eta nere odola edaten duenak betiereko bizia badu.” **60** Jesus hola mintzo entzun, eta haren dizipuluetarik ainitzek erran zuten: “Solaz hori gogorra da: nork entzun dezake?” **61** Dizipuluak marmarika ari zirela oharturik bere baitan, Jesusek erran zioten: “Ezin onartua iduritzen zaitzue hori? **62** Eta Gizonaren Semea lehen zagon tokirat igaiten ikusten bazinute?... **63** Izpiritua da bizi-emaile, haragia ez da deusetarako. Nik erran dauzkitzuetan hitzak izpiritu eta bizi dira. **64** Bainan badira zuen artean sinesten ez dutenak.” Alabainan, Jesusek hastetik bazakien zein ziren sinesten ez zutenak, eta nork salduko zuen. **65** Eta erran zuen gainera: “Horrengatik erran dautzuet ezin dela nehor nereganat etor, Aitak hori emaiten ez badio.” **66** Ordutik, haren dizipuluetarik ainitzek gibelerat egin zuten, eta harekin ibiltzea utzi. **67** Orduan, Jesusek Hamabieri erran zioten: “Eta zuek ez duzue joan nahi?” **68** Simun Petrik ihardetsi zion: “Jauna, norenganat joan gintezke? Zuk ditutzu betiereko biziaren hitzak. **69** Eta guk sinesten dugu, eta badakigu zu zirela Jainkoaren Saindua.”

□ **Jaunak esana!**

☉ Eskerrak Zuri, Jauna!

Many of Jesus’ disciples who were listening said, “This saying is hard; who can accept it?” Since Jesus knew that his disciples were murmuring about this, he said to them, “Does this shock you? What if you were to see the Son of Man ascending to where he was before? It is the spirit that gives life, while the flesh is of no avail. The words I have spoken to you are Spirit and life. But there are some of you who do not believe.” Jesus knew from the beginning the ones who would not believe and the one who would betray him. And he said, “For this reason I have told you that no one can come to me unless it is granted him by my Father.” As a result of this, many of his disciples returned to their former way of life and no longer accompanied him. Jesus then said to the Twelve, “Do you also want to leave?” Simon Peter answered him, “Master, to whom shall we go? You have the words of eternal life. We have come to believe and are convinced that you are the Holy One of God.”

□ **The Word of the Lord!**

☉ Praise to you, Lord Jesus Christ!

HOMILIA-HOMILY

SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

APOSTOLUEN AITORMENA

☉ **Sinisten dut, Sinisten dut!**

† **Sinisten dut Jaungoiko Aita ahalguztiduna,** zeru-lurren egilea. Sinisten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarririk dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

☉ **Sinisten dut, Sinisten dut!**

APOSTLES' CREED

† **I believe in God, the Father almighty,**

†☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead.

<p>Sinesten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikua, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza. ☉ Amen. ☉ Sinisten dut, Sinisten dut!</p>	<p>I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting. ☉ Amen.</p>
--	--

JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

+ Brothers and Sisters: Moved by the power of the Holy Spirit let us pray to God who is rich in mercy:

1. That the one God in three persons may bring about unity and harmony among the many nations of the world, **we pray to the Lord.**
2. That the Church may ever more effectively proclaim Christ, who leads all to the Father in the Holy Spirit, **we pray to the Lord.**
3. That the union of life in the Trinity may bring us into deeper union with those which the society tends to reject or ignore, **we pray to the Lord.**
4. That the poor, the sick, and all who suffer may be filled with the life of the Trinity and experience the loving presence of God's people, **we pray to the Lord.**
5. We pray for all those who are sick, that they recover and re-gain their health. We pray also for all members who are working on the front line during this pandemic. Keep them and their families safe and healthy. **We pray to the Lord.**
6. We pray for everyone who has lost their job, who has died, or has been negatively affected by the pandemic in our world. **We pray to the Lord.**
7. We pray for all Basque Clubs throughout the world, that they stay strong culturally and financially throughout this pandemic. **We pray to the Lord.**
8. That all of us gathered here in **Seattle**, to celebrate, virtually, our yearly picnic festivities, that we may continue sharing a life of unity the God calls us to experience, **we pray to the Lord.**
9. For our departed brothers and sisters during the past year: May the merciful God give them eternal rest, and consolation to their families, **we pray to the Lord.**

+ Lord God, we know that it is You who saves us, and that our actions add nothing to your greatness. Take good care of us your children. We ask you through Christ our Lord.

R. Amen.

**EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY
OPARI ESKAINTZA-OFFERTORY**

OPARI ABESTIA/OFFERTORY SONG

<p style="text-align: center;">Hartu Aita Zerukoa</p> <p>Hartu Aita, zerukoa, Jainko ta Jaun betikoa, Hartu gure eskaintza: Ogia eta ardoa.</p>	<p style="text-align: center;">Receive, Heavenly Father</p> <p>Receive Heavenly Father, Eternal Lord and God, Receive our offering: Bread and wine.</p>
--	--

Hona ogia, guziz garbia, Arren, denori, eman grazia; Eta hileri, zure bizia.	Here is the bread, immaculate, We pray, you give you grace to all; To the dead your live.
Hona ardoa, zerurakoa Heldu bekigu honen gozoa, Salba dadila mundu osoa.	Here is the heavenly wine We may receive its taste, The whole world be saved.

<p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</p> <p>☉ Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.</p> <p>☉ May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</p>
--	--

OPARIGAIEN GAINEKO OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

<p>† Aita guziz ona, opari bat bakarra behin betirako eskaini zenean, herri bat zuretzin hartu zenuen eta zure seme egin: emaiozu, arren, zure Elizari batasuna eta bakea. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.</p>	<p>† O Lord, who gained for yourself a people by adoption through the one sacrifice offered once for all, bestow graciously on us, we pray, the gifts of unity and peace in your Church. Through Christ our Lord. R/. Amen.</p>
--	--

EUKARISTI OTOITZA-The Eucharistic Prayer

<p>† Jauna zuekin</p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† Gora bihotzak.</p> <p>☉ Jaunagan dauzkagu.</p> <p>† Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.</p> <p>☉ Egoki da eta zuzen.</p> <p>† Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p>	<p>† The Lord be with you.</p> <p>☉ And with your spirit.</p> <p>† Lift up your hearts.</p> <p>☉ We lift them up to the Lord.</p> <p>† Let us give thanks to the Lord our God.</p> <p>☉ It is right and just.</p> <p>† It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God, through Christ our Lord.</p>
--	---

Berak, gure artean jaioaz, gizon-emakume barri egin gaitu; gurutzean hilez, gure bekatuak ezereztu ditu; hilen artetik biztuz, betiko bizia eman digu, eta Zugana igoaz, Aita guztiz santu, zeruko ateari zabaldu dizkigu.

Horregatik, aingeru ta santu guztiekin batean, beti ta beti abesten dizugu goratzarre hau.

☉ **Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!**

For by his birth he brought renewal to humanity's fallen state, and by his suffering, cancelled out our sins; by his rising from the dead, he has opened the way to eternal life, and by ascending to you, O Father, he has unlocked the gates of heaven.

And so, with the company of Angels and Saints, we sing the hymn of your praise, as without end we acclaim:

☉ **Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.**

Eukaristia Otoitza II-Eucharistic Prayer II

† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz † eta odol guretzat egin daitezten.

† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTAZUE ETA JAN GUZTIOK HONTATIK:
HAU NIRE GORPUTZA DA-TA, ZUENTZAT
EMANGO DENA**

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTAZUE ETA EDAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN KALIZA
DA-TA, ITUN BERRI ETA BETIKOAREN
ODOLA, ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.
EGIZUE AU NIRE OROIGARRI**

† **Hau da sinesmenaren misterioa.**

☉ Hil eta piztu zarela, Jauna: Zu berriz etorri arte, hau dugu, hau, berri ona!

† Horregatik, Jauna, zure Semearren heriotza eta piztuera gogoratzuz, biziaren ogia eta salbamenaren

† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body † and Blood of our Lord, Jesus Christ.

† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT:
FOR THIS IS MY BODY
WHICH WILL BE GIVEN UP FOR YOU.**

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK FROM
IT:
FOR THIS IS THE CHALICE OF MY BLOOD,
THE BLOOD OF THE NEW AND ETERNAL
COVENANT, WHICH WILL BE Poured OUT
FOR YOU AND FOR MANY
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.
DO THIS IN MEMORY OF ME.**

† **The mystery of faith:**

☉ We proclaim your Death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life

kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiekin batean.

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregan eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean goretz zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

† **Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan.**

☉ Amen.

and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, with blessed Joseph her spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.

† **Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.**

☉ Amen.

JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-Communion Rite

† **Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:**

†☉ Gure Aita, zeruetan zarana: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaiguzu gaur egun hontako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.

† **Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaitzazu bakea gure egunotan; zure errukiari**

† **At the Savior's command and formed by divine teaching, we dare to say:**

†☉ **Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.**

Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation, but deliver us from evil.

† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of

<p>esker bekatutik garbi bizi gaitezen eta estualdian sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela</p> <p>☉ Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.</p>	<p>your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.</p> <p>☉ For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.</p>
---	--

PAKEAREN OHIKUNEA Rite of the Peace

<p>† Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: “Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen.” Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaitza Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† Jaunaren bakea beti zuekin.</p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† Emaitzue bakea elkarri.</p> <p>☉ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna. Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna. Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaitzue bakea.</p> <p>† Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!</p> <p>☉ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.</p> <p>† Kristoren Gorputza.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† The peace of the Lord be with you always.</p> <p>☉ And with your spirit.</p> <p>† Let us offer each other the sign of peace.</p> <p>☉ Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us. Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us. Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.</p> <p>† Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.</p> <p>☉ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.</p> <p>† The body of Christ.</p> <p>☉ Amen.</p>
---	---

JAUNARTE ABESTIA/COMMUNION SONG

Ogi Zerutik	Bread from Heaven
<p>Ogi zerutik etorria, zu zera gure poz guztia. (bis)</p>	<p>Bread from Heaven. You are our only happiness (Bis).</p>
<p>Bildots santua hara hemen, munduko gaitza kentzearen. Sagrarioan non dagoen, lurra zeruaz bat egiten. Lurra zeruaz bat egiten.</p>	<p>Holy Lamb, here he is, Who to take away the sin of the world Finds himself in the Tabernacle Uniting earth and heaven Uniting earth and heaven.</p>

Jaunartze ondorengo otoitza-Prayer after Communion

<p>+ Ezar ezazu Jauna gure baitan zure errukiaren osasun betea: eta egizu, zuk lagundurik, orotan zure gogoko izan gaitzela. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.</p>	<p>+ Complete within us, O Lord, we pray, the healing work of your mercy and graciously perfect and sustain us, so that in all things we may please you. Through Christ our Lord. R/. Amen.</p>
--	--

BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-Final Blessing

<p>† Jauna zuekin. ⊙ Eta zure espirituarekin. † Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak. ⊙ Amen. † Zoazte Jaunaren bakean. ⊙ Eskerrak Jainkoari.</p>	<p>† The Lord be with you. ⊙ And with your spirit. † May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit. ⊙ Amen. † Go forth, the Mass is ended. ⊙ Thanks be to God.</p>
---	--

AZKEN ABESTIA/FINAL SONG N.2

Aingeru batek Mariari	The Angel of the Lord to Mary
<p>Aingeru batek Mariari Dio graziaz betea Jaungoikoaren semeari Emanen diozu sortzea.</p> <p>Jainkoaren nahi saindua Ni-baitan dadin egina Izan nadien amatua Bainan geldituz Birjina.</p> <p>Orduan Berbo Dibinoa Gorputz batez da beztitzen Oi, ontasun egiazkoa: Jauna gurekin egoiten.</p> <p>Otoitz zazu zure Semea Gure Ama amultsua Izan dezagun fagorea Ardiesteko zerua.</p> <p>Errepika</p> <p>Goiz arrats eta eguerditan, Ama laudatzen zaitugu,</p>	<p>The angel to Mary You are full of grace The Son of God You will give birth.</p> <p>The Holy Will of God Be accomplished in me So I may be loved But remaining Virgin.</p> <p>Then the Divine Word Is dressed in flesh What a marvelous truth That God rests with us.</p> <p>Intercede before your Son Loving Mother, That we may have the grace Of eternal heaven.</p> <p>Refrain</p> <p>Hail Mary, full of grace, Miraculous, wonderful,</p>

**Aingeruaren hitzak berak
Errepikatzen ditugu**

From sin our heart
Cleanse as you look on us.



SEATTLE EUSKAL ETXEA



*Besta Edera Seattle Euskal Etxeko
Euskaldun denari
Happy Picnic*



MARIA VICTORIA ETCHEVERRIA 1928(ERRATZU)-2021



Goian Begol/ May She Rest in Peace

JOHN URIBE (MORGA) 1946-2020



Goian Begol/May He Rest in Peace

LILLIAN MILHOLLAND 1928-2021



Goian Begol/May She Rest in Peace

URTEKO HOGEITA BATGARRREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(Leinuak Jainko bakarrari leial daude)

Josueren liburutik 24, 1-2.15-17.18b

1 Josuek Izraelgo leinu guziak bildu zituen Zikemen; gero deitu zituen Izraelgo zahar, buruzagi, juje eta idazlariak: elkarrekin Jaunaren aitzinean agertu ziren. **2** Josuek orduan, herri osoari erran zion: **15** “Jaunaren zerbitzatzea gaizki iduri bazaitzue, gaur zuek hauta nor zerbitza: zuen arbasoek Eufrates ibaiaz bestaldean zerbitzatu jainkoak, ala Amortarren jainkoak, orai bizi zirezten herrialdeko jendearenak. Nik eta nere etxeok Jauna zerbitzatuko dugu.” **16** Herriak ihardetsi zion: “Urrun guganik Jaunaren uztea, jainko arrotzak zerbitzatzeko! Jauna dugu gure Jainkoa. **17** Jaunak atera gaitu gu eta gure arbasoak Egiptotik, esklabo etxetik. Gure begiz ikusi ditugu hark egin dituen mirari handiak; hark zaindu gaitu egin dugun bide guzian barna, iragan ditugun herri guzietan. **18b** Guk ere, Jauna zerbitzatuko dugu, hura baitugu gure Jainkoa.”

Jaunak Errana!

Eskerrak Zuri, Jauna!

Salmoa 34 (33)

Leloa: Goza ta beha zoin den gozoa, zoin den maitea gure Jainkoa!

Jaunari beti esker emaiten nagokio,
Hari nik beti laudorio.
Jaunaren baitan arima kantuz banabila:
Bihotz apalak pitz ditela.

Dena begi da Jauna zuzenen zaintzen ari,
Dena beharri oihueri.
Gaixtagineri Jaunak hasarrez begiratzen,
Heien izena noiz nola ken.

Zuzenek oihu eta Jainkoak entzun ditu,
Hersturetarik berak hartu.
Bihotz errautsi apaldueri hurbil Jauna:
Zaintzen du zaintzen apal dena.

Bere gaizkiak hilen du hilen gaixtagina,
Onentzat duen herrak jana.
Bere gizonen zaintzale hor da hor Jainkoa:
Hari dagona ez da joa

Bigarren irakurgaia

(Kristo Elizaren “senarra” denaren mixterio handia)

Jondoni Paulok Efesako girixtinoeri 5, 21-32

Haurrideak,

21 Izan zaitezte elkarren menpeko, Kristori diozuen errespetuagatik: **22** emazteak senarraren menpeko, Jesus Jaunaren menpeko bezala, **23** senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala, bere gorputz horren Salbatzailea delarik; **24** Eliza Kristoren menpeko den bezala, emazteak ere senarraren menpeko izan daitezela denetan. **25** Senarrak, maita zuen emaztea, Kristok Eliza maitatu eta haren alde bere burua eman duen bezala. **26** Hola saildu egin nahi zuen, bataioko urez eta biziaren hitzaz garbituz. **27** Beretzat prestatu nahi zuen Eliza, distiratsua, zikinik eta zimurrik edo deus holakorik gabea, saildu eta garbia. **28** Gisa berean, senarrek ere beren gorputza bezala maitatu behar dute beren emaztea. Emaztea maite duenak bere burua maite du. **29** Nehork ez du bere gorputza hastio; aitzitik hazten du eta artatzen. Berdin Kristok Eliza, **30** gu haren gorputzeko menbro baigira. Liburu Sailduak dion bezala: **31** Horrengatik gizonak bere aitamak utziko ditu, eta emazteari elkartuko zaio, eta biak bat izanen dira. **32** Handia da mixterio hau, eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut.

Jaunak Errana!

Eskerrak Zuri, Jauna!

Ebanjelioa

Alleluia , alleluia

Zuk erran hitzak dire beti, bai izpiritu eta bizi. Betiereko bizikoak dituzu, Jauna, zure hitzak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 6, 60-69

Jesusek Kafarnaumeko zinagogan errana zuen: “Nere haragia jaten eta nere odola edaten duenak betiereko bizia badu.” **60** Jesus hola mintzo entzun, eta haren dizipuluetarik ainitzek erran zuten: “Solas hori gogorra da : nork entzun dezake?” **61** Dizipuluak marmarika ari zirela oharturik bere baitan, Jesusek erran zioten: “Ezin onartua iduritzen zaitzue hori? **62** Eta Gizonaren Semea lehen zagon tokirat igaiten ikusten bazinute?... **63** Izpiritua da bizi-emaile, haragia ez da deusetarako. Nik erran dauzkitzuetan hitzak izpiritu eta bizi dira. **64** Bainan badira zuen artean sinesten ez dutenak.” Alabainan, Jesusek hastetik bazakien zein ziren sinesten ez zutenak, eta nork salduko zuen. **65** Eta erran zuen gainera: “Horrengatik erran dautzuet ezin dela nehor nereganat etor, Aitak hori emaiten ez badio.”

66 Orduetik, haren dizipuluetarik ainitzek gibelerat egin zuten, eta harekin ibiltzea utzi.

67 Orduan, Jesusek Hamabieri erran zioten: “Eta zuek ez duzue joan nahi?” 68 Simun Petrik ihardetsi zion: “Jauna, norenganat joan gintezke? Zuk dituzu betiereko biziaren hitzak.

69 Eta guk sinesten dugu, eta badakigu zu zirela Jainkoaren Saindua.”

Jaunak Errana!

Eskerrak Zuri, Jauna!

Entrance Song

AMA MAITE, MARIA

The musical score for 'AMA MAITE, MARIA' is written in treble clef with a key signature of one flat (Bb) and a 3/4 time signature. The piece consists of six staves of music. The first staff begins with a quarter rest followed by a quarter note G4, a quarter note A4, a quarter note Bb4, a quarter note C5, a quarter note Bb4, a quarter note A4, and a quarter note G4. The second staff starts with a quarter rest, followed by a quarter note G4, a quarter note A4, a quarter note Bb4, a quarter note C5, a quarter note Bb4, a quarter note A4, and a quarter note G4. The third staff begins with a quarter rest, followed by a quarter note G4, a quarter note A4, a quarter note Bb4, a quarter note C5, a quarter note Bb4, a quarter note A4, and a quarter note G4. The fourth staff starts with a quarter rest, followed by a quarter note G4, a quarter note A4, a quarter note Bb4, a quarter note C5, a quarter note Bb4, a quarter note A4, and a quarter note G4. The fifth staff begins with a quarter rest, followed by a quarter note G4, a quarter note A4, a quarter note Bb4, a quarter note C5, a quarter note Bb4, a quarter note A4, and a quarter note G4. The sixth staff starts with a quarter rest, followed by a quarter note G4, a quarter note A4, a quarter note Bb4, a quarter note C5, a quarter note Bb4, a quarter note A4, and a quarter note G4. The score includes first and second endings marked with '1' and '2' respectively.

Offertory Song: Hartu Aita Zerukoa

Har - tu Ai - ta ze - ru ko - a, Jain - ko 'ta Jaun be - ti - ko - a, Ar - tu gu -

10 re ez - ka - in - tza, o - gi - a e - ta ar - do - a. 1. Ho-na o - gi - a
2. Ho-na ar - do - a

20 guz - tiz gar - bi - a a - rren guz - ti e - man gra - zi - a e - ta hi -
ze - ru - ra - ko - a ez da - ki - gu la'ho nen go - zo - a sal - ba de -

29 le - - - ri zu - re bi - zi - a. _____
di - - - lla mun - du o - so - a. _____

Communion Song

AINGERU BATEK MARIARI I (L)

Aingeru batek Mariari
di- o gra-zi- az be- te- a,
Jaun- goi- ko- a- ren Se- me- a- ri
e- man- go dio- zu sor- tze- a.

Goiz, a- rrats, e- ta e- guer- di- tan
A- ma, go- res- ten zai- tu- gu,
ain- ge- ru- a- ren - hi- tzak be- rak
guk e- re e- sa- ten di- zu- gu.

The musical score is written in G major (one sharp) and common time (C). It consists of two systems of four staves each. The first system is in common time and the second system is in 2/4 time. The lyrics are in Basque and are aligned with the notes on the staves. The score ends with a double bar line.